

Ordainketa kontu bati lotutako zerbitzu nagusien zerrenda

Kontua mantentzea	Erakundeak kontua kudeatzen du, bezeroak harekin eragiketak egin ahal izateko.
Zordunketa txartel baten jaulkipena eta mantentzea	Erakundeak bezeroaren kontuari lotutako ordainketa txartel bat ematen dio bezeroari. Txartel horrekin ordaindutako eragiketa bakoitzaren zenbatekoa zuzenean eta osorik zorduntzen da bezeroaren kontuan.
Kreditu txartel baten jaulkipena eta mantentzea	Erakundeak bezeroaren kontuari lotutako ordainketa txartel bat ematen dio bezeroari. Adostutako epe jakin batean zehar txartel horrekin ordaindutako eragiketa bakoitzaren zenbatekoa osorik edo partzialki zorduntzen da bezeroaren kontuan, adostutako datan. Erakundearen eta bezeroaren artean gauzatutako kreditu kontratuan xedatzen da erabilitako zenbatekoei interesik aplikatuko zaien ala ez.
Berariazko zorpekoa	Erakundeak eta bezeroak alde zuzenetik adosten dute bezeroak funtsak erabili ahal izango ote dituen, bere kontuan saldo erabilgarririk ez badu ere. Akordio horretan xedatzen da kasu horietan bezeroak erabili ahalko duen gehieneko zenbatekoa eta horren truke bezeroak komisio eta interesik ordaindu beharko duen ala ez.
Zorpeko tazitua	Erakundeak funtsak jartzen ditu bezeroaren eskura kontuan duen saldo erabilgarria amaitzen denean. Ez dago alde zuzeneko akordiorik erakundearen eta bezeroaren artean.
Transferentzia	Bezeroaren jarraibideak errespetatuta, erakundeak funtsak transferitzen ditu bezeroaren kontutik beste kontu batera.
Agindu iraunkorra	Bezeroaren jarraibideak errespetatuta, erakundeak zenbateko jakin bateko transferentziak egiten ditu aldian-aldian bezeroaren kontutik beste kontu batera.
Txartelarekin zordunketa bidez dirua ateratzea kutzazain automatikoetan	Bezeroak dirua ateratzen du bere kontutik, beste erakunde bateko kutzazain automatiko batean, txartelaren bitartez; erabilgarri duen saldoan zorduntzen da ateratako zenbatekoa.
Txartelarekin kreditu bidez dirua ateratzea kutzazain automatikoetan	Bezeroak dirua ateratzen du bere erakundeko edo beste erakunde bateko kutzazain automatiko batean, txartela erabilia, betiere funtsak bezeroarentzat irekitako kreditu lerro batek estalita badaude eta kontuan erabilgarri dagoen saldoa edozein izanda ere.
Ohartarazpen zerbitzua (SMS, posta elektronikoa edo antzekoa)	Erakundeak bezeroaren kontuan egindako mugimenduen inguruko informazioa bidaltzen du SMS mezu bidez, posta elektronikoz edo antzeko bitartekoren bat erabiliz.
Txekeen negoziazioa eta konpentsazioa	Erakundeak dagozkion kudeaketak egiten

	ditu txeke bat kobratu ahal izateko.
Txekeen itzulera	Erakundeak beharrezkoak diren ekintzak gauzatzeko dituzten erakunde batek txeke bat ordaindu ez duenean.